

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 6/2023 Foru Dekretua, otsailaren 28koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedurari**

Foru Gobernuaren Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Dekretuak honako hauek arautu zituen: foru aldundiko sailek sustatutako xedapen orokorrak egiteko prozedura (I. eranskina); arau inpaktuari (II. eranskina) eta genero inpaktuari buruzko txostenak egiteko gidak (III. eranskina); eta araugintza jarraibideak (IV. eranskina). Horren bidez, erantzuna eman zitzaion egungo araugintza politikaren erronka handienetako bati, araudi eraginkor eta efiziente bat prestatzeko zereginari, alegia.

Foru dekretu horretan, besteak beste, xedapen bakar batean jaso ziren ordura arte hainbat arau testutan sakabanatuta zeuden xedapen orokorren proiektuak egiteari buruzko hainbat aurreikuspen, hala nola abenduaren 18ko 52/1992 Foru Araua, Aldundiaren Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoari buruzkoa; abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Ekonomia eta Aurrekontu Erregimenari buruzkoa; edo uztailaren 23ko 48/2003 Dekretua, Gobernu Kontseiluarena.

Metatutako esperientziak, Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 24ko 55/2018 Epaiak (arau ekoi-zenaren prozedurari dagokionez, urriaren 1eko 39/2015 Legearen xedapenen irismenari buruz emana) eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen aldaketa berriak (martxoaren 3ko 1/2022 Legearen bidez gauzatua) gomendatzen dute 29/2017 Foru Dekretuan jasotako araudia eguneratzea eta hobetzea, prozedura ordenatuagoa, arinagoa eta eraginkorragoa ezartzeko, betiere erregulazio onaren printzipioei lotuta. Horrela, arauketa sinpleago eta argiago bat eskaintzeko botere publikoei eskatzen zaizkien ahaleginetan sakontzen da, prozedura sinplifikatuz, izapide bakoitzaren helbururako egokiagoa den modu batean egituratuz, eta hori guztia araztuz, kalitatea hobetearren.

Dekretu hau izapidetzeko, maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak bere I. eranskinaren 3. artikuluan jasotako araupetze onaren printzipioak bete dira. Horrela, azaldutako aurrekariaren arabera, behar bezala justifikatuta dago erregulazioaren beharra, eta, gainera, araugintza jarduera proportzionatua da eta segurtasun juridikoaren printzipioaren berme osoarekin garatua; izan ere, ordenamendu juridikoan nahitaez sartu beharra ez ezik, hura ematen duen organoaren gaikuntza ere arrazoituta geratu da, Arabako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolamenduari buruzko 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauak bere 17.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta printzipio orokor bat ere badago, zeinaren arabera administrazio-prozeduren arauketa, bere dimentsio materialean, lotuta geratzen baitzaio kasu bakoitzean egikaritu beharreko eskumenari.

Gardentasun printzipioaz denaz bezainbatean, printzipio hori bermatuta geratzen da, eta aurretiazko kontsulta publikoaren eta entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak ez egiteak, maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren 10.a), e) eta f) eta 13.4 artikuluetan, azken paragrafoan, xedatutakoaren arabera, Foru Aldundiaren autoantolaketa ahalaren ondoriozko administrazio prozedura bat denez, ez dute eragozten publizitate printzipioa babestea, ALHAOn argitaratzea agintzen baita, onetsi eta berehala.

Azkenik, kontuan hartuta indarrean dagoen arau testuan aldaketa ugari egin direla eta eskaintzen den prozeduraren egitura berria, beste testu bat onestea erabaki da, xedapen orokorrak egiteko prozedurari dagozkion funtsezko arauak jasoko dituen.

Gauzak horrela, Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuak 37.3.a) artikuluan foru organoei bere erakundeen antolaketa, araubide eta funtzionamenduaren arloan aitortzen eta esleitzen dien eskumen eskusiboa baliatuz, gaur egun indarrean dagoen Arabako Foru Aldundian sustatzen diren araugintza ekimenak izapidetzeko prozedura arautzen duen foru dekretuaren araugintza kalitatea hobetzeko, bai eta prozedura horren aurreko eta ondorengo jarduera eta jarduketena ere, dekretu hau eta haren eranskinak onesten dira, premia, eraginkortasun, proportzionaltasun, segurtasun juridiko, gardentasun eta efizientzia printzipioak erabat errespetatuz.

Horregatik, diputatu nagusiak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egin-dako bileran gaia aztertu ondoren, honako hau

## XEDATZEN DUT

### I. KAPITULUA

#### Xedapen orokorrak

#### 1. artikulua. Xedea

1. Foru dekretu honen xedea da prozedura arautua ezartzea foru arauen aurreproiektuak eta horien pareko maila eta indarra duten beste xedapen arauemaile batzuenak egiteko, bai eta Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorren proiektuak egiteko ere.

2. Berariazko lantze prozedura bat ezarrita duten arau xedapenak horren arabera egingo dira, hargatik eragotzi gabe foru dekretu honen aplikazio osagarria eta haren 3. artikuluan jasotako arauen kalitatearen eta erregulazio onaren printzipioen aplikazioa, bai eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauan, Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta aplikagarri den gainerako araudian xedatutakoaren arabera nahitaezkoak diren izapide eta txosten guztiak ere.

3. Ondorio horietarako, ez da prozedura berezizat hartuko txostenen bat egitea edo gaiaren araberako berariazko izapideren bat egitea.

#### 2. artikulua. Aplikazio eremua

1. Foru dekretu hau foru arauaren aurreproiektuak, foru dekretu arauemaileen proiektuak, urgentzia fiskaleko araugintzako foru dekretuen proiektuak, foru dekretuen proiektuak eta Arabako Foru Aldundiko sailek bultzatutako foru aginduen proiektuak egiteko prozedurei aplikatuko zaie, baldin eta antolamendu juridikoa berritzen duten arau juridikoak badituzte, bai alderdi materialei dagokienez, bai antolamenduari dagokionez.

Ez dira halakotzat hartuko aplikazio bakar batean agortzen diren hartzaile jakin edo determinagarri askori eragiten dieten administrazio egintza generikoak, beste betearazpen-egintza batzuk eragiten dituztenak, baldin eta egintza horien edukia erabat aurrez zehaztuta badago, ez eta xedapen orokorren aplikazioa errazteko emandako jarraibideak, orientabideak, irizpideak edo zerbitzu-aginduak ere, nahiz eta organo berberetatik eratorriak izan eta xedapen orokorren forma bera izan.

2. Foru dekretu honetan aurreikusitako prozeduratik berariaz salbuetsita daude honako hauek egitea:

a) Arabako Lurralde Historikoko Erakunde Antolaketa buruzko 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauaren 6. artikuluko 2. apartatuko b) letran aipatzen diren proposamenak Arabako Batzar Nagusiek berrestea helburu duten foru arauen aurreproiektuak, baita Arabako Lurralde Historikoko Foru Ondareari buruzko martxoaren 27ko 11/2019 Foru Arauan edo antzekoetan jasotako araugintza aurreikuspenak betez Batzar Nagusiek Foru Aldundiaren jarduera jakin batzuk baimentzea edo berrestea xede duten beste batzuk ere.

b) Foru Gobernu Kontseiluak, diputatu nagusiak edo foru diputatu eskudunak hauteskunderen arloan onetsi beharreko xedapen orokorren proiektuak.

c) Arabako Foru Aldundiaren sailak eta haren eskumeneko eremu materialak zehazteko xedea duten foru dekretuen proiektuak.

d) Xedapen proiektu orokorrak, helburu hauek dituztenak: akatsak zuzentzea; aurrekontu zainpeketak aldatzea; zergak aplikatzeko beharrezkoak diren balioak, koefizienteak, ehunekoak edo bestelako elementu kuantitatiboak aldian behin eguneratzea; edo indarrean dauden arau xedapenetan aurreikusitako prezioak, tarifak, kostuak edo balioak, koefizienteak, ehunekoak edo bestelakoak berrikustea.

e) Eskabideen, autolikidazioen, zerga ereduaren edo antzekoen eredu normalizatuak onesteko edo aldatzeko helburu nagusia duten xedapen orokorren proiektuak.

f) Xedapen orokorren izaera juridikoa duten planak xede dituzten arau proiektuak, bereziki lurraldekoak eta hirigintzakoak.

g) Sariak eta ohorezko goraipamenak ematea arautzen duten xedapen orokorren proiektuak.

3. Aurreko apartatuan aipatutako proiektuekin batera, c) letran jasotakoak salbu, txosten juridiko bat aurkeztuko da, honako hauek justifikatuz: egokitasuna eta motibazioa, prozeduratik salbuesten duen arrazoa, eta horien edukiaren eta izapidetzearen azterketa laburra, hargatik eragotzi gabe bidezkoak diren txosten guztiak, betiere gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoarekin bat.

### 3. artikulua. Arauen kalitatearen eta erregulazio onaren printzipioak

1. Araugintza ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala gauzatzean, Arabako Foru Aldundiak printzipio hauen arabera jardungo du:

– Beharra eta efikazia: araugintza ekimenak justifikatuta egon beharko du interes orokorreko arrazoiengatik, lortu nahi diren helburuak identifikatu beharko ditu eta hori lortzeko tresnarik egokiena izan beharko du.

– Proporzionaltasuna: proposatzen diren araugintzako ekimen guztietan argi erakutsi beharko da kasuan kasuko ekimena dela aukerarik egokiena eta ez dagoela beste neurririk proposatutakoek baino betebeharrak gutxiago ezarriko dituenik edota eskubideak gutxiago murriztuko dituenik.

– Segurtasun juridikoa: arau ekimenak Europar Batasuneko zuzenbidearekin eta gainerako ordenamendu juridikoarekin bat etorri arautuko dira, arau esparru egonkorra, aurreikusteko modukoa, integratua, argia eta egiazkoa sortzeko, arau xedapenen hartzaileek horiek ezagutu eta uler ditzaten.

– Gardentasuna: indarrean dauden arau xedapenetarako eta horiek egiteko berezko dokumentuetarako sarbide erraz, unibertsal eta eguneratua erraztuko da, gardentasunari buruzko foru araudi espezifikoaren arabera.

– Efizientzia: arau ekimenek beharrezkoak ez diren edo osagarriak diren administrazio kargak saihestu beharko dituzte, eta, horien aplikazioan, baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatu.

– Sinpletasuna eta ulergarritasuna: araugintza ekimenak modu egituratuan argitaratuko dira, hizkera argian eta erraz ulertzeko moduan.

– Kontuak ematea: araugintza jarduerak kontuak eman behar ditu, Urteko Arau Planaren ebaluazioaren eta betetze mailaren jarraipenaren bidez eta horretarako hautatutako araudiaren ebaluazioaren bidez.

2. Zioen azalpenean behar bezala justifikatuko da aurreproiektua edo xedapen orokorraren proiektua printzipio horietara egokitzen dela.

3. Araugintza ekimenak oraingo edo etorkizuneko gastu edo sarrera publikoei eragiten die-nean, horien ondorioak eta efektuak kuantifikatu eta baloratu eta aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren printzipioak bete beharko dira.

4. Prozedura garatzean, neurri egokiak hartuko dira pertsona guztiek beren eskubideak gau-zatu ahal izan ditzaten, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dauden printzipioak errespetatuko dira, elkarlaneko gobernantzan nagusi izan beharreko entzute ak-tiboa eta herritarren lankidetzat sustatuz, hizkuntza berdintasuna eta informazioaren kalitatea bermatuz.

## II. KAPITULUA Aurretizko jarduketak

### 4. artikulua. Urteko Araugintza Plana

1. Urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, Arabako Foru Aldundiak urteko araugintza plan bat onetsiko du, eta, bertan, hurrengo urteko ekitaldian onesteko proposatu asmo dituen foru araugintzako ekimenak jasoko dira.

2. Urteko Araugintza Planak honako informazio hau jasoko du, gutxienez, ekimen bakoitzari buruz:

- izena eta maila,
- foru dekretu honetan ezarritako prozedurari lotuta dagoen ala ez, eta, hala badagokio, kontsulta publikoko eta entzunaldi eta informazio publikoko izapideei lotuta,
- lortu nahi dituen helburuak,
- ekimena ebaluatzeko modukoa den ala ez, kontuan hartuta, batez ere, eragiten duen kostua, hartaileak eta azken horiei ezarritako administrazio kargak.

3. Organo eskudunak Urteko Araugintza Planean agertzen ez den arau proposamen bat sustatzen badu, xedapena egiteko prozedurari hasiera emateko ebazpenean justifikatu beharko da erregulazio horren premia edo beharra.

### 5. artikulua. Urteko Araugintza Planaren erantzukizuna

1. Urteko Araugintza Plana erakundearen arau garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzak egin eta kudeatuko du, eta Foru Gobernuaren Kontseiluari igorriko zaio, indarrean egon aurreko urteko abenduaren 30a baino lehen onar dezan.

2. Ondorio horietarako, araugintza ekimen bat bultzatzea aurreikusten duten sailek, hura egi-teko prozedura hasi behar den urtearen aurreko urteko azaroaren 30a baino lehen, 4. artikuluko 2. apartatuan aipatutako informazioa bidaliko dute, araugintza garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzak horretarako onartzen dituen ereduaren eta giden arabera, emandako infor-mazioa homogoneoa, ordenatua eta koherentea izan dadin.

3. Onetsitako Urteko Araugintza Plana Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da, herritarren informazioa eta parte hartzea bermatzeko.

### 6. artikulua. Urteko Araugintza Planaren betetze mailaren jarraipena eta ebaluazioa

1. Urte bakoitzeko ekainaren 30a baino lehen, Foru Gobernuaren Kontseiluak urteko txos-tena hartuko du kontuan. Txosten hori erakundearen arau garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzak egingo du, eta foru dekretu hau aplikatuz onetsitako aurreko urteko Urteko Araugintza Planaren betetze maila jasoko du.

2. Ebaluazio hori egiteko, inplikaturako sailerako zerbitzuen laguntza izango da. Zerbitzu horiek, martxoaren 31 baino lehen, beren arau plangintza gauzatzeari buruzko informazioa emango dute, ebaluatu beharreko Urteko Araugintza Planean jasotako ekimen bakoitzaren betetze maila zehaztuz.

3. Horretarako, arauak garatzeko eskumena duen zuzendaritzak ereduak eta gidak onetsiko ditu, sailek emandako informazioa homogeneoa, ordenatua eta koherentea dela bermatzeko.

4. Txostena Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren Atariaren bidez zabalduko da.

### **7. artikulua. Arauen ebaluazioa eta aurretzako beste jarduketak**

1. Gaian eskumena duten Foru Aldundiko sailek indarreko araudiari buruzko hausnarketa eta berrikuspen lanak egingo dituzte, araugintzaren kalitatearen eta erregulazio onaren printzipioetara egokitzeko, eta, hala badagokio, ebaluatzeko hautaturako arauak aurreikusitako helburuak zein neurritan lortu diren egiaztatuz, eta ezarritako kostua eta kargak justifikatuta eta behar bezala kuantifikatuta ote zeuden ziurtatzeko.

2. Xedapen orokorra egiteko prozedura hasi aurretik, sailek behar diren azterlanak eta analisiak bultzatuko dituzte, zuzentasun eta egokitasuna bermatzeko; horretarako, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunari, herritarren parte hartzeari eta gobernu onari buruzkoak, bere 53. artikuluan aipatzen dituen partaidetza bideen bitartez herritarrek egin ahal izan dituzten ekarpenak hartuko dira kontuan.

### **8. artikulua. Genero eraginaren aurretzako ebaluazioa**

Ekimena sustatu duen sailak, ekimena egiteko prozedura hasi aurretik, beharrezko lanak eta hausnarketak egingo ditu ekimenak emakumeen eta gizonen egoeran izan dezakeen eraginera hurbiltzeko, genero ikuspegia txertatzearen prozeduran.

### **9. artikulua. Aurretzako kontsulta publikoa**

1. Araugintza xedapen bat egiteko prozedura hasi aurretik, sail sustatzaileak kontsulta publiko bat egingo du, eta, bertan, herritarren eta potentzialki ukitutako erakunde adierazgarrien iritzia jasoko du; honako eduki hauek jorratuko dira gutxienez:

- a) ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) onesteko beharra eta egokitasuna,
- c) xedapenaren helburuak,
- d) beste aukera arautzaile eta ez arautzaile batzuk, eta
- e) xedapenaren xede den publiko objektiboa.

2. Aurretzako kontsulta publikoa bitarteko telematikoen bidez egingo da, Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, arrazoizko epe batez, eta epe hori ezin izango da 10 egun baliodunetik beharrezkoa izan, Arabako Foru Aldundiaren webgunean jasotzen den egunetik zenbatzen hasita.

3. Kontsulta publikoa garatuko da ekimenaren hartzaile diren pertsona eta erakunde guztiek kontsultaren edukia eskuragarri izan dezaten, eta arreta berezia jarriko da emakumeen eta gizonen parte hartze ekitatiboa izan dezala, herritarren hizkuntza eskubideak bermatuta.

### **10. artikulua. Kontsulta publikoaren izapidetik salbuestea**

1. Xedapen orokorrak egiteko prozeduratan, ezin izango da alde aurreko kontsulta publikorik eskatu honako kasu hauetan:

- a) helburua aurrekontu edo antolaketa arauak direnean,
- b) behar bezala justifikatuta dauden interes publikoko arrazoi larriak tarteko direnean,
- c) jarduera ekonomikoan eragin nabarmenik ez dagoenean,

- d) hartzaileei betebeharrak garrantzitsurik ezartzen ez zaienean,
  - e) gai baten alderdi partzialak arautzen dituztenean,
  - f) indarrean dagoen araudia funtsean aldatzen ez dutenean, pertsonak lehendik dituzten eskubideei eragin gabe,
  - g) goragoko araudi juridiko baten egokitzapenak direnean edo lege agindu baten ondorio direnean,
  - h) Batzar Nagusiek alde aurretik eskuordetzen dutenean.
2. Aurreko inguruabarretako bat edo batzuk gertatzen badira, proposamena egin duen sailak aintzat hartuko ditu, eta justifikatuta geratuko da prozedura hasten duen aginduan.

### III. KAPITULUA Prozedura

#### *Lehenengo atala*

#### *Egitura eta hasiera*

#### **11. artikulua. Prozeduraren egitura**

1. Oro har, eta dagozkion berezitasunei kalterik egin gabe, araugintzako xedapen orokorrak egiteko prozedura honako txosten eta izapide hauetan egituratzen da:

- a) hasteko ebazpena, arau testuaren proposamena onesten duena,
- b) entzunaldiko izapidea eta jendaurrean jartzea,
- c) gaiaren araberrako txosten eta izapide espezifikokoak,
- d) araugintza eraginari buruzko txostena,
- e) generoaren araberrako eraginari buruzko txostena,
- f) prozedura emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan aplikatu beharreko araudira egokitzen dela egiaztatzeko izapidea,
- g) antolaketa, funtzio publiko, aurrekontu eragin eta beste sail batzuen txostenak, kasuaren arabera,
- h) Kontsulta batzordearen irizpena, hala badagokio,
- i) Ekonomia eta arau kontroleko txostena, hala badagokio,
- j) legezketasun kontrola.

2. Aurreko letretan aipatutako txostenak eta izapideak hurrengo apartatuetan aipatzen den hasiera ebazpena onetsi ondoren egingo dira.

#### **12. artikulua. Organo eskuduna**

1. Gaiaren arabera eskumena duen saileko titularrak hasiko du prozedura. Hala ere, beste araugintza xedapen batzuetan hala ezartzen bada, edo bi sailek edo gehiagok eskumen zuzena duten gaiak badira, bultzada Foru Gobernuaren Kontseiluak edo diputatu nagusiak sustatu beharko du.

2. Baldin eta, xedapena egiteko prozedura hasitakoan, beste sail batzuek parte hartu behar luketela irizten bazaio, xedapenak eragina izan dezakeelako haien eskumeneko gaietan, sail horiek ere prozeduran sartuko dira. Ordura arte egindako jarduketak beren horretan mantenduko dira, ahal den neurrian.

3. Xedapenak bi sail edo gehiago ukitzen dituen kasu horietan guztietan lan batzordeen sorrera sustatuko da, ukitutako sailen ordezkariak parte har dezaten helburuak zehazteko eta testu arauemailea idazteko lanetan.

**13. artikulua. Prozedura hastea**

1. Prozedura hasteko, eskumena duen organoak ebazpen bat eman behar du, araugintza garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzak horretarako ezarritako araugintza jarraibideen arabera egindako araugintza testuaren proposamena onesteko.

2. Hasierako ebazpen horretan honako hauek jasoko dira labur-labur:

- a) gaia, xedea eta ekimena justifikatzen duten arrazoiak,
- b) bideragarritasun juridiko eta materialaren estimazioa,
- c) antolamendu juridikoan izango duen eraginerako hurbilketa, xede berari begira aldatuko den araudia adieraziz,
- d) egokitzat jotzen diren izapide eta txostenen zerrenda,
- e) ekimena egin izanaren justifikazioa, baldin eta Urteko Araugintza Planean sartuta ez badago,
- f) presako izapidetzea justifikatzen duten egitateak eta oinarriak, hala badagokio.

3. Ekimena sustatzen duen unitatea saiatuko da araugintza proposamena jakinarazten Foru Aldundiko gainerako sailei, bere egokitasunari buruz egoki iritzitako oharrak egiteko aukera emango duen bide baten bidez.

*Bigarren atala*

*Garapena*

**14. artikulua. Entzunaldia eta jendaurrean jartzea**

1. Izaera orokorreko xedapenen aurreproiektuak eta proiektuak, pertsonen eskubide eta interes legitimoak ukitzen badituzte, argitara emango dira Gobernu Irekiaren Atarian, entzunaldiko izapidea egiteko. Horrela, eraginpeko herritar eta erakundeek egokitzat jotzen dituzten ekarpen guztiak egin ahal izango dituzte.

2. Iritzia azaltzeko eskatu ahal izango zaie zuzenean, halaber, legez onartuta dauden erakunde edo elkarteei, xedapen arauemaileak eskubide edo interes legitimoak ukitzen dizkien pertsonak biltzen edo ordezkatzeko badituzte eta beren helburuek zuzeneko zerikusia badute xedapenaren gaiarekin. Hori guztia, ezertan eragotzi gabe erakunde horiek aurreko apartatuan aipatutako entzunaldiko eta jendaurrean jartzeko izapidean parte hartzeko duten eskubidea erabili ahal izatea.

3. Entzunaldia eta jendaurrean jartzea gutxienez hamar egun balioduneko epean egingo da, eta sei egun baliodunera murriztu ahal izango da prozedura presaz izapidetu behar dela xedatzen denean.

4. Entzunaldiko eta jendaurrean jartzeko izapidetik salbuetsita geratuko da arau ekimenak prestatzea, hori justifikatzen duten interes publikoko arrazoi larriak daudenean eta antolamendu eta aurrekontu izaerako ekimenak direnean.

Inguruabar horiek arau eraginari buruzko txostenean jasoko dira arrazoituta.

**15. artikulua. Instrukzio izapideak**

Araugintza testuaren proposamena onetsi ondoren, gaiaren arabera dagozkion txosten, kontsulta eta izapide espezifikoak egingo dira, salbu eta dagokion araudiak ezartzen badu beste une batean egingo direla.

**16. artikulua. Arauen eraginari buruzko txostena**

1. Araugintza garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzak onetsitako giden arabera egingo da arauen eraginari buruzko txostena, eta honako alderdi hauek jasoko ditu:

- a) proposamenaren egokitasuna eta komenigarritasuna,
- b) edukia, azterketa juridikoa, zein arau esparrutan txertatzen den adierazita, indargabetuta geratzen diren xedapenen zerrenda xehatua barne,

- c) araugintzako proposamena nola egokitzen zaion eskumen banaketaren ordenari,
- d) proposamenaren ekonomia eta aurrekontu inpaktua, betiere kargak eta beharrezko giza baliabideak identifikatuz, gastuen eta diru sarreren zenbatespena eta foru erakundearen aurrekontuetan izango duen eragina adieraziz,
- e) kontsulta eta entzunaldi publikoko izapideen emaitza, hasierako testuari gehitutako ekarpenak edo baztertzeko arrazoiak adieraziz,
- f) emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egindako izapideak,
- g) beste eragin batzuk,
- h) araudia ebaluatzeko modukoa den ala ez, eta, hala badagokio, ebaluatzeko adierazleak eta mekanismoak.

### **17. artikulua. Generoaren arabera eraginari buruzko txostena**

1. Ekimena bultzatu duen sailak osatu egingo du genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa, aurreko 8. artikulua araberak garatua, eta txosten batean jasoko du, ea arauan proiektatutako jarduerak ondorio positiboak edo kaltegarriak izan ditzakeen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean, eta, hala badagokio, zeintzuk diren emakumeen eta gizonen egoeran izan dezakeen eragin negatiboa neutralizatzeko proposamenean jasotako neurriak eta horien jarraipena.

2. Izaera orokorreko xedapenen aurreproiektu eta proiektuekin batera generoaren arabera eraginari buruzko txostena berdintasunaren arloan eskumena duen zerbitzuaren esku jarriko da, egiazta dezan, zerbitzu horrek dagozkion oharrak egin ditzan eta, behar izanez gero, aldatzeko bidal ditzan, zertarako eta xedapen arauemailea egiteko prozeduran berdintasunaren arloko araudia behar bezala aplikatzen dela bermatzeko.

3. Berdintasunaren alorrean eskumena duen zuzendaritzak jarraibideak onetsiko ditu, generoaren arabera eragina ebaluatzeko, berdintasuna sustatzeko neurriak txertatzeko eta dagokion txostena egiteko.

Jarraibide horietan ezarriko dira, halaber, berdintasunaren arloan aurreikusitako ebaluazio beharretik eta gainerako izapideetatik kanpo geratzen diren arauak.

### **18. artikulua. Sailen txostenak**

1. Foru arauaren aurreproiektuak egiterakoan, horretarako eskumena duen administrazio unitatearen aurrekontu eraginari buruzko txostena jaso beharko da, eta araugintza proposamen horiek aurrekontu karga badakarte, dagokion finantzaketa proposamena ere aurkeztu beharko da, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 68. eta 69. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

2. Ekimenak antolakuntzakoak direnean, funtzio publikoaz eta antolamenduaz arduratzen den sailari eskatuko zaizkio funtzio publikoaren eta antolaketaren arloan araudiak eska ditzakeen txostenak.

### **19. artikulua. Kontsulta Batzordearen txostena**

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 30eko 40/1999 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, zenbait kasutan, izaera orokorreko xedapenen proiektua organo eskudunari onesteko aurkeztu aurretik, irizpena eskatu behar zaio Arabako Foru Administrazioaren Kontsulta Batzordeari. Horrelakoetan batzordeari irizpena eskatu zaio eta eskaerari erantsita igorriko zaizkio izaera orokorreko xedapenen proiektuaren testua, emandako memoria eta txostenak eta egindako kontsultak.



**20. artikulua. Arauen kontrol ekonomikoaren txostena**

Aurreko artikuluetan aipatutako agiriak eman ondoren, ekimena bultzatu duen sailak Arabako Foru Aldundiaren egituraren arabera eskumena duen administrazio unitatearen ekonomia eta araudi kontrolari buruzko txostena jasoko du, betiere Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren 126. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

**21. artikulua. Arauen koordinazioa eta kalitatea: legezatasun kontrola**

1. Foru Gobernuaren Kontseiluak, diputatu nagusiak edo foru diputatuek onetsi beharrekoak diren izaera orokorreko xedapenak egiteko prozesuak koordinatzeko eta arauen kalitatea gainbegiratzeko eginkizunak Aldundiaren Idazkaritza Orokorreko Zerbitzuaren eskumenekoak izango dira.

2. Horretarako, aurreproiektua edo xedapen orokorraren proiektua onetsi aurretik, haren legezatasuna kontrolatuko da, eta, gutxienez, honako alderdi hauek aztertu beharko ditu:

- a) proposatutako arauaren maila,
- b) Foru Aldundiak xedapena onesteko eta haren legezatasuna kontrolatzeko duen eskumena,
- c) dokumentuaren kalitate teknikoa,
- d) nola egokitzen zaion ekimena urteko araugintza planari,
- e) nola bete diren arautze egokiaren printzipioak eta hori nola islatu den zioen azalpenean,
- f) beste arau batzuen berariazko indargabetzea, beharrezkoa denean.

3. Kontrola negatiboa bada edo edukian garrantzizko aldaketak egin behar bazaizkio, testua sail sustatzaileari itzuliko zaio, txosteneko oharra eta iradokizunak aztertu eta bidezko deritzona erabaki dezan. Kontrolak eragozpenik izan ezean, testua organo eskudunari helaraziko zaio, azter dezan eta, hala badagokio, onets dezan.

*Hirugarren atala*

*Arau bereziak*

**22. artikulua. Xedapen orokorrak presaz izapidetzea**

1. Interes publikoko arrazoi larriak edo aparteko inguruabarrak direla eta, aurrez aurreikusitako ezin diren arren, xedapena presaz onetsi behar denean, prozedura hasteko eskumena duen organoak presako izapidetzea deklaratu ahal izango du, dekretu honetan aurreikusitako epeak murrizteko edo egin beharreko izapideren bat salbuesteko.

2. Kasu horietan, prozedura hasteko ebazpenak edo presako izapidetzea xedatzen duenak prozeduraren oinarri diren egitateak eta oinarriak justifikatuko ditu.

3. Presako prozeduraren bidez izapidetzen diren araugintza ekimenak salbuetsita geratuko dira foru dekretu honen 10. artikuluan jasotako alde aurreko kontsulta publikoaren izapidetik.

**23. artikulua. Zerga premiazko foru dekretu arauemaileen proiektuak**

1. Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 67. artikuluan eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan aipatzen diren urgentzia fiskaleko araugintzako foru dekretuen proiektuek ez dituzte aurreko artikuluetan finkatutako izapideak bete beharko.

Aurrekoa gorabehera, ekimen horiekin batera hauek aurkeztuko dira: arauen eraginari buruzko txostena eta legezatasun kontrola, foru dekretu honen 16. eta 21. artikuluetan aipatzen direnak, hurrenez hurren; Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 68. eta 69. artikuluetan jasotako aurrekontu eraginari buruzko txostena; eta xedapen orokorrak egiteko arloan aplikatu beharreko araudiarekin bat datozen gainerako txosten eta izapide guztiak.

*Laugarren atala*

*Amaiera*

#### **24. artikulua. Onespena**

1. Foru arauaren aurreproiektuen, foru dekretu arauemaileen eta zerga urgentziakoen izapideak amaitu ondoren, ekimena bultzatu duten sailek Foru Gobernu Kontseiluari helaraziko diote, eta hark behin betiko testua ezagutuko du, harekin batera aurkeztutako dokumentazioarekin, eta, hala badagokio, onetsi eta Arabako Batzar Nagusietara bidaliko du, eztabaidatu eta, ondoren, onetsi, baliozkotu edo indargabetu dezan, kasuaren arabera.

2. Foru Gobernuaren Kontseiluaren foru dekretuen proiektuak izapidetu ondoren, organo horrek behin betiko onetsi beharko ditu, eta Foru Aldundian sustatutako gainerako araugintza xedapen orokorrak ezagutzea eta, hala badagokio, onestea diputatu nagusiari eta foru diputatu eskudunei egokituko zaie.

Apartatu honetan aipatzen diren araugintza xedapenak organo eskudunari jakinarazteko epea zortzi hilabetekoa izango da, prozedura hasten denetik kontatzen hasita, hala badagokio, onar ditzan.

3. Erregelamenduzko xedapenak onetsi ondoren, ALHAOn argitaratuko dira.

4. Ekimena organo eskudunari aztertzeko eta, hala badagokio, onesteko proposatu aurreko edozein unetan ondorioztatzen bada egokia dela irtenbide ez erregulatzailerik bat aukeratzea, prozedura artxibatu egingo da, modu arrazoituan, prozedura hasi zuen organoaren ebazpen bidez.

#### **25. artikulua. Publizitatea**

Herritarrek foru araudia hobeto ezagutzen dutela bermatzeko, foru aldundiak arau xedapen garrantzitsuen testu eguneratuak argitaratzea bultzatuko du, aplikazio eremuan zabalkunde handiagoa ahalbidetzen duten bitartekoen bidez.

#### **XEDAPEN IRAGANKORRA. Trantsizio aldia**

1. Foru dekretu hau indarrean sartu aurretik hasitako xedapen orokorrak egiteko prozedurak aurreko araudiaren arabera izapidetuko dira amaitu arte.

2. Zuzendaritza eskudunak foru dekretu honetan aipatzen diren gidak eta ereduak onartu arte, indarrean jarraituko dute Foru Gobernu Kontseiluaren Xedapen orokorrak, arau eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza jarraibideak egiteko prozedura onesten duen maiatzaren 23ko 29/2017 Dekretuaren II., III. eta IV. eranskinek.

#### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA. Indargabetzailea**

Indargabetuta geratzen da Foru Gobernu Kontseiluaren Xedapen orokorrak, arau eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza jarraibideak egiteko prozedura onesten duen maiatzaren 23ko 29/2017 Dekretua, bai eta dekretu honetan xedatutakoaren aurkako xedapen guztiak ere.

#### **AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea**

Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 28a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Kabinete eta Komunikazio zuzendaria*

**ELENA FERREIRA SEBASTIÁN**